



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.06.10

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Patxi Amantegi Zubiria
Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi ekainaren hamarrean, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea “18. Apattaerreka” hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurak azpiesparruko plan bereziaren ingurumen azterlan estrategikoa.
3. Onartzea Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektuko obren 8. ziurtagiria-likidazioa (fv1-1904-0026 faktura eta fvi-1811-1905-0031 faktura).
4. Alkatetza-Dekretu hauen berri ematea: 2019ko maiatzaren 30etik ekainaren 5era (dk2019/921-2019/968).

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko ekainaren 3an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA “18. APATTAERREKA” HIRIGINTZA ESPARRUKO 18.1. (TOLOSA)-IBARRAKO LURRAK AZPIESPARRUKO PLAN BEREZIAREN INGURUMEN AZTERLAN ESTRATEGIKOA.

2018ko irailaren 19an, idatzi baten bitartez, industrialde honen ordezkari Idoia Bastida Saguesek APATTAERREKA INDUSTRIALDEAREN 2. FASEAREN plan berezia tramitatzeko eskatzen dio Udalari.



TOLOSAKO
UDALA

Lehenago, 2017ko irailean, EKOS Estudios Ambientales SLU enpresak Apattaerreka eskualdeko industrialdearen 2. faseari dagokion Ohiko Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako Hasierako Dokumentu Estrategikoa idatzi zuen.

Ingurumen ebaluazioari buruzko Legean (21/2013 Legea, abenduaren 9koa) aurreikusitako prozedurari jarraikiz, 2018ko apirilaren 12an Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzak Plan Berezi honi dagokion **Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Irismeneko dokumentua** egin zuen.

2018ko ekaineko datarekin, EKOS Estudios Ambientales SLU enpresak Apattaerreka eskualdeko industrialdearen "18.1 (Tolosa) – Ibarako lursailak" azpiero osoari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Ingurumen Azterlan Estrategikoa egin zuen, Eusko Jaurlaritzak egindako Irismeneko dokumentuan ezarritako irizpideak barneratuz.

2018ko irailaren 20an, Idoia Bastida Seguesek, TOLOSAKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, S.A. enpresaren izenean, Ingurumen Azterlan Estrategikoa aurkeztu du, Tolosako udalari tramitazioa jarraitu dezan eskatuz.

Txosten honetan Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako Azterlan Estrategikoa aztertuko da.

TXOSTENA

Dokumentua aztertuta, ondorengo ondorioztatzen da:

- Ingurumen ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013 Legea, abenduaren 9koa) IV. eranskinean zehazten da Ebaluazio Estrategikorako Azterlan Estrategikoak izan behar dituen atalak. Azterlan hau 211/2012 Dekretuak ezartzen duenarekin osatu behar da.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Administrazioaren Zuzendaritzak Plan Berezi honi dagokion Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Irismeneko dokumentua egin zuen, zehaztuz Ingurumen Azterlan Estrategikoak jaso behar zituen atalak goian aipatutako araudia kontuan hartuz.
- Ekos SLU enpresak egindako Ingurumen Azterlan Estrategikoak aipatutako araudi hori eta Irismen dokumentuak ezarritakoa betetzen du. Irismen dokumentuan beste erakunde batzuk emandako irizpideak kontuan hartu dira. Hala nola, Osasun Sailak, Ingurumen sailak, Kultura sailak eta Ur Agentziak.



TOLOSAKO
UDALA

2019/02/28an, Alkatearen 2019/0368 Dekretuaren bitartez poligonoaren sustatzaileari aurkeztutako Plan berezian honakoak zuzentzeko eskatzea onartu zen, Planari Hasierako Onespena eman aurretik:

1- Planean Ibarrako lurpeko pasabidetik poligonoraino oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna aurreikustea. Baita lehendik eraikita dagoen poligonoarekin konexioa eta poligono berriko barneko bidegorri sarea eta bizikleten aparkalekuarekiko lotura ere. Bizikletentzako bideak oinezkoen bidetik segregatua eta funtzionala izan beharko du.

Ibarrako lurpeko pasabidetik poligonoraino oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna aurreikusi du Plan Bereziak. Hala ere, ez plan berezian, ez Ingurumen Azterlan Estrategikoan, ez da zehazten puntu hau. Lehendik eraikita dagoen poligonoarekin konexioa eta poligono berriko barneko bidegorri sarea eta bizikleten aparkalekuekiko lotura **urbanizazio proiektuan** zehaztu egin beharko dira, ondorengo kontuan hartuz:

1.1- Ibarratik industrialde berrira bizikletentzako bide egokia eta funtzionala diseinatu behar da, oinezkoen bidetik segregatuta. Funtzionala hitzarekin esan nahi da bizikletentzako bidea eroso, segurua eta ahalik eta zuzenena izan behar duela.

1.2- Industrialde berrira iristean Apatta-errekako lehen faseraino bizikletaz joan ahal izateko, azpiegitura egokia proposatu, zehaztu eta planoetan irudikatu beharko da.

2. Orokorrean, Plan Bereziaren ordenantzetan jasotzea ingurumen azterketa estrategikoan ondorioztatutako alderdiak; besteak beste, ibai-ibilgu perimetrala eta ekaitz-putzua lehengoratzeko neurriak jaso beharko dira; horien artean, ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko neurriak.

Eskaera honi dagokionez, ez plan berezian, ez Ingurumen Azterlan Estrategikoan, ez da neurrik zehaztu jakiteko nola bermatuko den ibai-ibilgu perimetrala eta ekaitz-putzuan ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko. Urrik gabe nekez egin ahal izango da eremu horien benetako ingurumen kalitatearen hobekuntza.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea 2018ko irailaren 20an aurkeztutako "18. Apattaerreka" hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurrazpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari dagokion Ingurumen Azterlan Estrategikoa.

BIGARRENA.- Ingurumen ebaluazioari buruzko Legea (21/2013 Legea, abenduaren 9koa) aurreikusitako prozedurari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzara bidaltzea Plan Berezi honi dagokion Ingurumen Azterlan Estrategikoaren dokumentua, tramitazioarekin jarraitu dezan.

HIRUGARRENA.- Txosten honetan esaten diren irizpideak kontuan hartzea ondoren idatziko den urbanizazio proiektuan, zehazki:

1- Urbanizazio proiektuan Ibarrako lurpeko pasabidetik poligonoraino oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna modu funtzionalean eta seguruan bermatzea. Horretarako, bizikletentzako bideak oinezkoen bidetik banandua izan beharko du.

2- Urbanizazio proiektuak Ibai-ibilgu perimetrala eta ekaitz-putzuaren eremuak lehengoratzeko neurriak jaso beharko ditu; horien artean, ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko neurriak.

LAUGARRENA.- Plan Berezia eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa 45 EGUNEZ jendaurrean jartzea alegazioak aurkeztu ahal izateko.

BOSGARRENA: -Erabaki honen berri ematea eskatzaileari, Idoia Bastida Seguese-ri, TOLOSAKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, S.A- ordezkariari eta Hirigintza Departamentuari.

3. ONARTZEA TOLOSAKO GUDARI KALEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUKO OBREN 8. ZIURTAGIRIA-LIKIDAZIOA (FV1-1904-0026 FAKTURA ETA FVI-1811-1905-0031 FAKTURA).

TXOSTENA:

Earki Arkitektoak S.Coop. Peq. p., enpresak ondorengo txostena egin du 2019ko maiatzaren 30ean, Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko obrei buruz:



“Tolosako Udalak Construcciones Campezo Obras y Servicios S.A., enpresari esleitu zion Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektuko obraren kontratua, 647.662,54 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa. Kontratuaren kopuru orokor horretan, ondorengoak dira Udalarik dagozkion atalak:

- Argindarra
 - Printzipala.....29.278,28 €
 - BEZa.....0,00 €
 - GUZTIRA.....29.278,28 €

- Gainerako partidak
 - Printzipala.....399.759,31 €
 - BEZa.....83.949,46 €
 - GUZTIRA.....483.708,77 €

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
1. ziurtagiria (BEZik gabe).....	-----	0,00 €
1. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	FV1-1807-0014.....	5.559,05 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe).....	-----	0,00 €
2. ziurtagiria (% 21ko BEZa).....	FV1-1808-0054.....	7.675,94 €
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV1-1809-0065.....	5.546,27 €
3. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	FV1-1809-0064.....	42.533,17 €
4. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV1-1810-0031.....	2.728,24 €
4. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	FV1-1810-0030.....	70.417,24 €
5. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV1-1811-0058.....	20.153,02 €
5. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	FV1-1811-0057.....	180.991,09 €
6. ziurtagiria (BEZik gabe).....	-----	0,00 €
6. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	FV1-1901-0012.....	78.715,48 €
7. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV1-1901-0013.....	2.063,55 €
7. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	FV1-1901-0015.....	57.710,62 €
GUZTIRA.....		474.093,67 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako zortzigarrena eta, aldi berean, likidazioa, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
8. ziurtagiria-likidazioa (BEZik gabe).....	FV1-1904-0026.....	8.894,77 €
8. ziurtagiria-likidazioa (% 21eko BEZa).....	FV1-1905-0031.....	57.393,03 €



GUZTIRA.....66.287,80 €

Azken ziurtagiri hau kontuan izanda, obraren egoera ekonomikoa ondoren jasotzen den moduan geratzen da:

OBRAK					
ADJUDIKAZIOA (BEZ-A KANPO)					429.037,59
ZENBAKIA	FAKTURA ZB	ONARRIA		GUZTIRA	PORTZENTAIA
		ONARRIA	BEZ-A		
1	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
	FV1-1807-0014	4.594,26	964,79	5.559,05	%1,07
2	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
	FV1-1808-0054	6.343,75	1.332,19	7.675,94	%1,48
3	FV1-1809-0064	35.151,38	7.381,79	42.533,17	%8,19
	FV1-1809-0065	5.546,27	0,00	5.546,27	%1,29
4	FV1-1810-0030	58.196,07	12.221,17	70.417,24	%13,56
	FV1-1810-0031	2.728,24	0,00	2.728,24	%0,64
5	FV1-1811-0057	149.579,41	31.411,68	180.991,09	%34,86
	FV1-1811-0058	20.153,02	0,00	20.153,02	%4,70
6	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
	FV1-1901-0012	65.054,12	13.661,37	78.715,49	%15,16
7	FV1-1901-0013	2.063,55	0,00	2.063,55	%0,48
	FV1-1901-0015	47.694,73	10.015,89	57.710,62	%11,12
8-LIKIDAZIOA	FV1-1904-0026	8.894,77	0,00	8.894,77	%2,07
	FV1-1905-0031	47.432,26	9.960,77	57.393,03	%11,06
GUZTIRA		453.431,83	86.949,65	540.381,48	%105,68

Kopuru horretan argindar-sarearen berrikuntza dago sartua, Tolargi enpresari dagokiona (FV1-1904-0026 faktura). Esan beharra dago atal horretan proiektuan jasota zeuden aurreikuspenak gainditu egin direla. Igoeraren arrazoia da Tolargi, S.A. enpresako teknikariek obran eskaerak egin dituztela, sare-elektrikoa hobetzeko helburuarekin. Jatorrizko proiektuan jada jasota zeuden partidetak neurketak igo egin dira, partida berriak sortu gabe. Ondorengo da Tolargi, S.A. enpresari dagokion kapituluaren zenbakien laburpena, BEZa kontuan hartu gabe:

- Proiektuan jasotako kopurua.....29.369,00 €
- Adjudikazioko kopurua.....29.278,28 €
- 8. ziurtagiriko kopurua.....8.894,77 €
- GUZTIRA.....39.385,85 €
- Igoera.....+ 10.107,57 €
- % igoera.....+34,52%

Udalaren kontratuko gainerako partidek ere gorakada txiki bat izan dute. Honakoa da udalari dagozkion partiden zenbakien laburpena:

- Proiektuan jasotako kopurua.....485.207,66 €
- Adjudikazioko kopurua.....483.708,77 €
- 8. ziurtagiriko kopurua.....57.393,03 €



- GUZTIRA.....500.995,63 €
- Igoera..... + 17.286,86 €
- % igoera..... +3,57%

Aurreko bi atal nagusiak orotara hartuta, hau da, Tolargiri dagokion atala eta Udalari dagozkion gaineko partiden atala, bukaeran izan diren kopuruak jarraian jasotakoak dira:

- Proiektuan jasotako kopurua.....514.576,66 €
- Adjudikazioko kopurua.....512.987,05 €
- 8. ziuertagiriko kopurua.....66.287,80 €
- GUZTIRA.....540.381,48 €
- Igoera..... + 27.394,43 €
- % igoera (BEZa kontuan hartu gabe)..... +5,68 %

Ikus daitekeenez, adjudikazioarekiko hazkunde bat izan da likidazioko azken kopuruan, % 5,68koa hain zuzen ere (BEZa kontuan hartu gabe).

Oro har, aldaketa horiek neurketen igoera baten ondorio dira, obra-zuzendaritzaren txostenean jasotzen den moduan. Partida berri bakararra sortu da obran, zazpigarren ziuertagirian onartu ziren loreontziena, hain zuzen ere.

*Ziuertagiria aztertu ondoren, **ontzat ematen da:***

- **Udalaren atala (BEZa barne)**
 - 8. ziuertagiria57.393,03 €
 - Likidazioa.....500.995,63 €
- **Tolargiren atala (BEZik gabe)**
 - 8. ziuertagiria8.894,77 €
 - Likidazioa.....39.385,85 €
- **GUZTIRA (BEZa barne)**
 - 8. ziuertagiria66.287,80 €
 - Likidazioa..... 540.381,48 €”

Ziuertagiri hau aztertuta, eta kontuan izanik udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziuertagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektuko obran 8. ziuertagiria-likidazioa (FV1-1904-0026 faktura) eta (FV1-1905-0031 faktura), honako kopuruekin:



- **Udalaren atala (BEZa barne)**
- **8. ziuertagiria57.393,03 €**
- **Likidazioa.....500.995,63 €**

- **Tolargiren atala (BEZik gabe)**
- **8. ziuertagiria8.894,77 €**
- **Likidazioa.....39.385,85 €**
-
- **GUZTIRA (BEZa barne)**
- **8. ziuertagiria66.287,80 €**
- **Likidazioa.....540.381,48 €**

BIGARRENA.- Dagokion faktura ordaintzea

HIRUGARRENA.- Tolargi SA enpresari argindarrari dagokion 8.894,77 €-ko gastua errekeritzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresari, Hirigintza Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

4. ALKATETZA-DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO MAIATZAREN 30ETIK EKAINAREN 5ERA (DK2019/921-2019/968).

Alkatetzak 2019ko maiatzaren 30etik ekainaren 5era bitartean (DK 2019/921-2019/968) egin dituen dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei. Honako hauek dira:

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
921	2019	30/05/2019	IDAZKARITZA	UZTURRE 25 ERAIKUNTZAN HAINBAT HEZETASUNAK NOR EGIN ZEHAZTEA
922	2019	30/05/2019	HIRIGINTZA	SAN ESTEBAN 30BC JARDUERARI BURUZKO AURKEZTUTAKO ERREKURTZOAREN ERANTZUNA
923	2019	30/05/2019	PERTSONALA	MAIATZAKO NOMINAREN ETA ATZERAPENEN ORDAINKETA
924	2019	30/05/2019	HIRIGINTZA	USABAL INDUSTRIAGUNEKO 207 PABILOIARENTZAKO (C4PARTZELA) UR-HARTUNE BERRIA EGITEKO LIZENTZIA EMATEA
925	2019	30/05/2019	IDAZKARITZA	2/2019 ERREPAROA ALTXATZEA
926	2019	30/05/2019	ALKATETZA	ALEKA ALDIZKARIAREN ABAL ITZULERA
927	2019	30/05/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO UDALERRIAN POLTSA KONPOSTAGARRIAK EROSTEKO HORNIDURA KONTRATUA ESLEITZEA



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
928	2019	30/05/2019	KONTUHARTZAILLETZA	IBILGAILUEN ZERGA. ITZULKETA
929	2019	31/05/2019	PERTSONALA	2018/2347 DEKRETUAREN ZUZENKETA (AKATSA ERRENTA ADMINISTRARIAREN SOLDATAN)
930	2019	31/05/2019	HIRIGINTZA	DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA NAFARROA ETORBIDEA 7 BEHEAN
931	2019	31/05/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO ZEZEN-PLAZAKO HARMAILA BERRITZEKO OBRA KONTRATUA ESLEITZEA.
932	2019	31/05/2019	UDALTZAINGOA	ESPEDIENTE ZEHATZAILE BATI DAGOKION DIRU ITZULKETA ONARTZEA
933	2019	31/05/2019	HIRIGINTZA	LOPEZ MENDIZABAL 1,2,3 KONPONKETAK EGITEKO LIZENTZIA EMATEA
934	2019	31/05/2019	AZOKAK	ZUMARDIA ELKARTEARI BAIMENA EMATEA EKAINAREN 8AN POSTUA JARTZEKO ZERKAUSIAN
935	2019	31/05/2019	HIRIGINTZA	USABALEKO PARTZELA BATZUK UDAL INBENTARIOAN SARTZEA.
936	2019	31/05/2019	HIRIGINTZA	LAUTABI SUSATAPENAK SLURI LEHEN ERABILERAKO BAIMENA EMATEA
937	2019	31/05/2019	OBRAK	BEOTIBAR PILOTALEKUKO OSTALARITZA ERAIKINAREN TEILATUA ETA FATXADA BIRGAITZEKO ETA PILOTALEKUKO ERAIKINEKO IRISGARRITASUN OBREN ZUZENDARITZA LANAK EMATEKO JARRITAKO ABALA EZ ITZULTZEA
938	2019	03/06/2019	KONTUHARTZAILLETZA	30 ETA 31. FAKTUREN ERLAZIOAK ONARTZEKO
939	2019	03/06/2019	KONTUHARTZAILLETZA	IBILGAILUEN ZERGA. ERREKARGUAREN ITZULERA EZ ONARTZEA. LLO
940	2019	03/06/2019	HIRIGINTZA	OBRA ETA JARDUERA BAIMENA USABAL 27.EAN
941	2019	03/06/2019	HIRIGINTZA	ESPEDIENTEA ONIRITZIA EMAN ALDABA TXIKI ISASTEGI GOIKOA BASERRIAN ABELTZAINZAKO USTIAPENA JARDUERARAKO
942	2019	03/06/2019	DIRU-BILKETA	26966 ESPEDIENTEAREN BAJA
943	2019	03/06/2019	DIRU-BILKETA	26964 BAJA EMATEKO
944	2019	03/06/2019	DIRU-BILKETA	4954 ESPEDIENTEAREN BAJA
945	2019	03/06/2019	UDALTZAINGOA	BELENA PATIORAKO PLAZA ESKAERA
946	2019	03/06/2019	PERTSONALA	IKASTAROA (PREPRACIÓN Y AJUDICACIÓN CONTRATOS)
947	2019	03/06/2019	KONTUHARTZAILLETZA	ZERGEN ORDAINKETA ZATIKATUA ONARTZEA.
948	2019	03/06/2019	PERTSONALA	IKASTAROA (COMPETENCIA DIGITAL. USO CREATIIVO DE LA TECNOLOGÍA. NIVEL BÁSICO)
949	2019	03/06/2019	KONTUHARTZAILLETZA	ZERGEN ORDAINKETA ZATIKATUA ONARTZEA.
950	2019	03/06/2019	KONTUHARTZAILLETZA	ZERGEN ORDAINKETA ZATIKATUA ONARTZEA.
951	2019	03/06/2019	KONTUHARTZAILLETZA	ZERGEN ORDAINKETA ZATIKATUA ONARTZEA.



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
952	2019	03/06/2019	KONTUHARTZAILLETZA	ZERGEN ORDAINKETA ZATIKATUA ONARTZEA.
953	2019	04/06/2019	IDAZKARITZA	ARTXIPIAGA PLAZAKO S-3 LURRAZPIKO SOLAIRUKO 2. GARAJEAREN ERABILERA ESKUBIDEAREN TITULARTASUN ALDAKETA ONARTZEA
954	2019	04/06/2019	AZOKAK	BERRIZ PROGRAMA. 2019KO LEHENENGO HIRUHILEKO DIRULAGUNTZA EMATEA
955	2019	04/06/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	FUNDAZIO ASUMPTIO PRO INNOVARI HAINBAT HITZALDIA EMATEKO BAIMENA EMATEA ETA ESKATU DUTE MATERIALA JARTZEA.
956	2019	04/06/2019	IDAZKARITZA	UZTURRE 17 BEHEA 6E ETXEBIZITZA TASATUA ETA BERE ERANSKINAK SALTZEKO BAIMENA EMATEA
957	2019	04/06/2019	UDALTAINGOA	ETXEKO ABEREEN ORDENANTZAKO ARAU-HAUSTEAGATIK ESPEDIETEA IREKITZEA
958	2019	04/06/2019	PERTSONALA	TUTORE ESKUBIDEAK
959	2019	04/06/2019	HIRIGINTZA	ZERKAUSIA 2-2.EZKERRA ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENARI DAGOKION OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA BUELTAZERA
960	2019	04/06/2019	FESTAK	HERRIKIDE IKASTETXEARI 2019KO EKAINAREN 8AN, PUZGARRIAK JARRI DITZAN, SAN IGNAZIO KALEAREN ERABILERA UZTEA.
961	2019	04/06/2019	FESTAK	BALEUKO, S.L. ENPRESARI 2019KO EKAINAREN 9AN EUSKAL HERRIA PLAZAN ETB-KO AHOTSAK SAIOA GRABATZEKO BAIMENA EMATEA.
962	2019	05/06/2019	GAZTEDIA	UNAI OLALDE CORNAGORI BAIMENA EMATEA 2019KO EKAINAREN 8AN AUTO KONTZENTRAZIOA EGITEKO USABAL KIROLDEGIKO APARKALEKUAN.
963	2019	05/06/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO VOITH GOROSTIDI EREMUKO ETXEBIZITZA TASATUAK ESLEITZEKO OINARRIETAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA JAKINARAZTEA
964	2019	05/06/2019	PERTSONALA	IÑIGO KEREJETA (ADMINISTRARI)
965	2019	05/06/2019	HIRIGINTZA	OBRA BAIMENA. SAN FRANTZISKO 1
966	2019	05/06/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	2018KO OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZU ARLOAN LAN EGITEAGATIK DIRULAGUNTZA ONARTU ETA ORDAINTZEA
967	2019	05/06/2019	PERTSONALA	IXIAR OREJA ALTUNA (ARKITEKTO TEKNIKOA)
968	2019	05/06/2019	IDAZKARITZA	ANDRE MARIA KALEA 14KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA

Denak jakinaren gainean geratu dira.



Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatusuna dela eta, Gobernu Batzarrak aho batez onartu ondoren, honako gai hau aztertu da:

- **TOLOSAKO BIDE PUBLIKO JAKIN BATZUETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA KONTROLATZEKO, MUGATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.**

1.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Kontratuaren helburua	Tolosako bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzuaren kontratua.
Unitate sustatzailea	Udaltzaingoa

2.- AURREKARIAK

Lehena.- 2013ko urtarrilaren 8an, Administrazio Orokorreko teknikariak igorritako txostenaren bitartez, hasiera eman zitzaion Tolosako bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzuaren kontratuaren lizitazioari.

Bigarrena.- Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak, 2013ko urtarrilaren 23an egindako bileran, besteak beste, Tolosako bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzua kontratuaren espedientea onartu eta lizitazioan aginduko zuten pleguak onartu zituen. Lizitazioa zerbitzuen emakidatzat onartu zen. Jardunbide osoa legearen arabera garatu ondoren, 2013ko maiatzaren 24an Kontratazio-Mahaiak proposatu zuen aipatutako kontratua GERTEK, S.A. (A-95.158.895) enpresari esleitzea.

Hirugarrena.- 2013/760 Alkatetza-Dekretuaren bidez, GERTEK, S.A. (A-95.158.895) enpresari errekeritu zitzaion zegokion dokumentazioa aurkeztu zezan eta 2013ko ekainaren 21ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrak aipatutako kontratua behin betiko izaeraz esleitu zion GERTEK, S.A. enpresari, honako baldintza hauetan:

- Prezioa: 564.971 euro urtean.
- Iraupena: 4 urte; hala ere, beste 2 urtez, urtez urte, luzatzeko aukera aurreikusten zen.

Laugarrena.- 2013ko ekainaren 28an, Tolosako Udalaren ordezkariak eta GERTEK, S.A. (A-95.158.895) enpresaren ordezkariak kontratua formalizatu zuten.



Seigarrena.- 2017ko ekainaren 19an, aipatutako kontratua bukatzeaz zegoenez, Trafiko Batzordeak aipatutako kontratuaren luzapenaren aldeko irizpena eman zuen; horrenbestez, 2017ko ekainaren 26an egin zen Tokiko Gobernu Batzarrak kontratuaren urtebeteko luzapena onartu zuen, 2018ko ekainaren 28ra arte.

Zazpigarrena.- 2017ko uztailaren 28an, Alfredo González Urigoitia jaunak, GERTEK, S.A. (A-95.158.895) enpresaren ordezkariak hain zuzen ere, kontratuaren prezioaren berrazterketa eskatu zuen, baina 2018ko urtarrilaren 29an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak mahai gainean utzi zuen gaia.

Zazpigarrena.- 2018ko maiatzaren 16an udal idazkariak, berriro ere, aipatutako kontratua luzatzeko lege-txostena igorri zuen, eta ondoren udal kontuhartzaileak berea igorri zuen. Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko maiatzaren 21ean, besteak beste, kontratuaren luzapena eta prezioaren eguneratzea onartu zituen, jarraian azaltzen diren xehetasunekin:

- Luzapenaren epea: 2018ko uztailaren 1etik 2019ko uztailaren 1era arte.
- Prezioa luzapenaren fasean: 568.673,44 euro, % 21eko BEZa barne. Prezio horri erantsi behar zitzaion 2017ko ekainetik 2018ko ekainera arteko KPIaren aldaketa.
- Kontratuaren prezioaren % 0,775eko igoera onartzea.

Zortzigarrena.- Aipatu bezala, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, 2019ko ekainaren 30ean bukatzen da, baina lizitazioaren konplexutasuna eta udal baliabideen ezintasuna kontuan izanik, eta kontratua arautzen duten baldintza tekniko eta ekonomikoen agiriaren 3. artikuluan xedatutakoa kontuan izanik, ontzat ikusten da kontratu hau luzatzea hurrengoaren esleipena egin arte, beti ere, hura lizitzeko jardunbidea martxan jartzen bada.

3.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Araubide juridikoa: Luzapenari dagokionez, Baldintza Tekniko eta Ekonomikoen Pleguaren 3. artikulua jasotzen duen kontratuaren hasierako iraupena lau urtekoa izango zela. Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea beste bi urtez, urtez urte, luzatu ahal izango zela xedatzen zen, Tokiko Gobernu Batzarrak horrela erabakiz gero, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 303. artikulua xedaturikoari jarraiki.

Halaber, administrazio kontratu mota guztietako luzapenak direla-eta, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu 23. artikulua 2. atalak honako hau xedatzen du: *“2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el periodo de duración de éstas y que la concurrencia para su adjudicación haya sido realizada teniendo en cuenta la duración máxima del contrato, incluidos los periodos de prórroga. La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para*



el empresario, salvo que el contrato expresamente prevea lo contrario, sin que pueda producirse por el consentimiento tácito de las partes.”.

Baina kasu honetan, proposatzen den luzapenak ez du ohiko izaera eta aipatutako pleguan aurreikusten da kontratazio organoak duela hura luzatzeko ahalmena: *“Hurrengo kontratuaren esleipena ez bada kontratu hau bukatu aurretik egiten, indarrean den hau luzatzeko aukera izango da, baldintza beretan beti ere, harik eta hurrengo kontratazioa hitzartu arte, eta PERTSONA ESLEIPENDUN berriak zerbitzuaren ardura hartzeko arrazoizko denboran.”.*

Ez-ohiko luzapen hau egiteko bi arrazoi nagusi daude; alde batetik, lizitazio berriaren zailtasuna, eta bestetik, berriz, Udalaren baliabideen ezintasuna. Beraz, nahiz eta lizitazio berria jadanik martxan dagoen, ezinezkoa izango da aipatutako epearen barruan esleipen berria egitea; horrenbestez, behar-beharrezkoa ikusten da aipatutako artikuluan xedatutakoaz baliatuta, ez-ohiko luzapena egitea, betiere, esleipen berria egin arte eta orain esleipendun den enpresaren aurretiazko adostasunarekin.

Auzitegi Nazional honi buruz, zehaztasunak eman zituen 2016ko sententzia batean: *“Audiencia Nacional, Sala de lo Contencioso-administrativo, Sección 4ª, Sentencia 24/2016 de 20 Ene. 2016, Rec. 89/2015: la posibilidad de que el contratista cuyo contrato se resuelve continúe prestando el servicio, ha de ser entendida en sus justos términos y no puede tener como consecuencia que esa situación provisional se convierta en definitiva por el hecho de que no se haya logrado una nueva licitación.”.* Beraz, hemen planteatzen den aukera aurreikusita dago jadanik.

Prezioen berrikuspena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 89. artikuluan eta hurrengoetan, Administrazio Publikoetako kontratuen prezioak berrikusteko xehetasun hauek ematen ditu, 2016ko abuztuan indarrean zegoen Legearen bertsioan: *“1. Los precios de los contratos del sector público solo podrán ser objeto de revisión periódica y predeterminada en los términos establecidos en este Capítulo. No cabrá la revisión periódica no predeterminada o no periódica de los precios de los contratos. Se entenderá por precio cualquier retribución o contraprestación económica del contrato, bien sean abonadas por la Administración o por los usuarios. 2. Previa justificación en el expediente y de conformidad con lo previsto en el real decreto al que se refieren los artículos 4 y 5 de la Ley 2/2015, de desindexación de la economía española, la revisión periódica y predeterminada de precios solo se podrá llevar a cabo en los contratos de obra, en los contratos de suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas y en aquellos otros contratos en los que el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años. Dicho período se calculará conforme a lo dispuesto en el real decreto anteriormente citado. No se considerarán revisables en ningún caso los costes asociados a las amortizaciones, los costes financieros, los gastos generales o de estructura ni el beneficio industrial. Los costes de*



TOLOSAKO
UDALA

mano de obra de los contratos distintos de los de obra, suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas, se revisarán cuando el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años y la intensidad en el uso del factor trabajo sea considerada significativa, de acuerdo con los supuestos y límites establecidos en el Real Decreto.”.

Horregatik guztiagatik, kontratua 2013an sinatu zenez eta aipatutako legea 2015. urtekoa denez, eta udal kontuhartzaileak jarraitutako irizpidea kontuan izanik, luzapen honek, beraz, prezioaren berrikuspena ekarriko luke; baina, luzapena onartzeko premiatasuna eta berrikuspenak sortzen dituen izapide guztiak kontuan izanda, proposatzen da dagokion organo eskudunak luzapena onartzea eta ondoren, alkatezaren dekretuaren bidez, zenbatekoa finkatzea. Udal kontuhartzaileak aldeko iritzia eman du.

Organo eskuduna.- Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena kontratazio-organoari dagokio.

Kasu honetan, kontratazio-organoa Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriaren I. atalean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera: *“Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.”*, baina, 2015/1278 Alkatezaren Dekretuaren bidez alkate-lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetu zituen hainbat eskuduntza, horien artean, era guztietako kontratazio eta kontzesioak 60.000,00 eurotik gorakoak, baldin eta ez badute gairatzen aurrekontuko baliabide arruntaren % 10, ezta sei milioi euro ere; beraz, Tokiko Gobernu Batzarrena da kontratua luzatzeko eskumena.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzuaren kontratuaren luzapena, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako klausulekin. Era berean, kontratu honen eraginpean



TOLOSAKO
UDALA

geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere, beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartu baitu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

BIGARRENA.- Kontratuaren luzapena, gehienez, urtebetekoa izango da, hau da, 2019ko uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 30a arte; baina hori, edozein kasutan, kontratu berria esleitzen den momentuan bukatuko da. Esleipen berria ahal den epe motzenean egin beharko da eta, edozein kasutan, aurretik oraingo esleipendunaren baiezkoa izan beharko du.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren luzapenean prezioa berrikustea, baina ondorengo une baterako utzita, aurretik egin behar diren izapide guztiak eginda eta zenbateko berria kalkulaturik. Horri guztiari kontuhartzaileak onespena eman dio.

LAUGARRENA.- Aipatutako zerbitzua 0400.227.07.133.10 udal aurrekontuko partidaren kargura finantzatzea, horretarako, aipatu bezala, udal kontuhartzaileak onespena eman baitu.

BOSGARRENA.- GERTEK, S.A. (A-95.158.895) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritza kontratuaren luzapena formalizatzerantz bertaratu dadin, gehienez 15 eguneko epean.

SEIGARRENA.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko Kontratzailearen Profilean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, legezko txostena igor dezaten.

ZORTZIGARRENA.- Luzapen honen oinarriko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

Eta besterik gabe, bilera amaitzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA